




Eskulangileen erakusketa jendetsua, Kultur Astea bukatzeko

LEITZA ▶ Euskal Herri osoko 28 artisauk lana eta langintza erakutsi zituzten igandean, eta ikusle franko bildu zen; herri afaria eta musika ere izan dira ▶ 7



Pitxiak, saskiak, makilak, abarkak, kutxak, ukenduak, bidrierak... izan ziren ikusgai igandean. MADDI SOROA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

‘Oriarko krabelina’, amari eskainitako liburua

IKAZTEGIETA ▶ Ana Mari Larrea 79 urteko ikaztegietak arrak liburua idatzi du, euskaraz ▶ 4-5

NEREA AMILIBIA ▶ KORRIKALARIA

«Lehen euskalduna izatea nahi nuen, eta lortu dut»

Aizkorriko mendi maratoian aritu da ▶ 6



**Diseinua eta kreazioa halmenean
oinarritutako heziketa**

■ **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**

ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**


ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95
20008 Donostia
Gipuzkoa
Tel: 943 910 873
Fax: 943 910 875
www.ceinpro.es

Zure etorkizunak kontaktatu du



Ateak Zabalik:
06/05/11 eta 06/05/31.
Orduak: 12:00tan eta 18:00tan.
Berio pasealekua, 50 · Donostia
Tel. 943 316 900 · www.cebanc.com



ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Jabetxe arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozogintza eta okigintza.
- Ostatu arloa.
- Bidai agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemen administrazioa.
- Informatika-aplikazioen garapena.
- Sistema informatikoen ustiapena.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

ADMINISTRAZIOA

- Administrazio eta finantzak (A eta D).
- Idazkaritza.
- Administrazio-kudeaketa.

LANBIDE HASTAPENEN IKASTURTEA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Kudeaketa sistemaren ziurtagiria jaso du osasun publikoak

Tolosa - Goierri eskualdea ISO 9001:2000 ziurtagiria jasotzen lehena da, Euskal Autonomia Erkidegoan



Iragan asteazkenean jaso zuen Tomas Plazaolak —erdian— ziurtagiria, osasun publikoaren izenean. n. l.

NOELIA LATABURU

Iragan astean Tolosa-Goierri osasun publikoko eskualdeak kudeaketa sistemaren ziurtagiria jaso zuen. Tolosako udal-txan eginiko ekitaldian Tomas Plazaolak, eskualdeko osasun publikoko koordinatzaileak, jaso zuen saria; bertan izan ziren, halaber, Tolosako alkate eta Tolosaldeko udal-errietako mankomunitateko lehendakari Jokin Bildarratz, lurralde-osasuneko zuzendari Manu Errezola, Osasun Publikoko zuzendari Margarita Vi-ciola eta zuzendariorde Miren Dorronsoro.

Eskualdeko osasun publiko lehena da bere lanean ISO 9001:2000 ziurtagiria eskuratzen, kudeaketaren kalitatea ziurtatzen duena. Osasun publikoak «zerbitzuaren kalitatea hobetzea» izan du helburu. Haren lana herritarren osasuna babestean datza batik bat, eta horretarako bi alderdi lantzen dituzte; batetik, elikaduraren babesa eta, bestetik, ingurumen osasuna. Guztira, 56 udal-erriren kargu da Tolosa-Goierri eskualdeko osasun publikoak; Jokin Bildarratz alkateak «guztietan betetzen duten lana» eskertu zuen; Plazaolak, berriz, lan talde guztiaren lana ekarri zuen gogora ekitaldian eta langile guztiei banatu zieten, banan-banan, ziurtagiria.

TOLOSA ▶

Etzi, Abesbatzen Sari Nagusiko sarrerak salgai

Etzi, estegunarekin, ekainaren 17an, Usabal kirol eta aisialdigunean jokatuko duten XVIII. Europako Abesbatzen Sari Nagusiko sarrerak salgai jarriko dituzte. Hala, Tolosako Ekinbide Etxean (TEE), 16:00etatik 19:00etara, eta egunean bertan Usabalgo lehiatilan jarriko dituzte sarrerak eskuragarri, hogei euroren truke.

IKAZTEGIETA ▶

Herriko jaiak antolatzeko bilera, gaur

Herriko jaiak antolatzeko lanari eutsiz, bigarren bilerara deitu dute, gaurko, 21:00etatik aurrera. Biler herriko liburategian egingo dute, eta arduradunek deialdi irekia egin nahi izan diete herritar guztiei, abuztuan izango diren San Lorentzo jaien antolaketan parte hartzeraz gonbidatu.

TOLOSA ▶

KZguneko ikastaroetan izen-ematea, zabalik

Datorren hilean izango dituzten ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko, KZgunean. Heldu den astean hasiko diren ikastaroak, orain arte bezala, 20 ordukoak izango dira: hain zuzen ere, ekainaren 5etik 16ra, 9:00etatik 11:00etara edota 16:00etatik 18:00etara. Eta, ekainaren 19tik 30ra, 11:00etatik 13:00etara. Izen emateko interesa duten guztiek 943 65 37 20 telefono zenbakira dei dezakete bai eta KZgunera zuzenean joan ere.

TOLOSA ▶ KIROLA

Bruesa Gipuzkoa Basket taldearen bisita gaur, ACB Ligara igoera dela eta

11:00etatik aurrera Trianguloan izango dira saskibaloijokariak

N. LATABURU

Bruesa Gipuzkoa Basket saskibaloijokariak ACB Ligara igoera lortu du berriki. Hori dela eta, bira berezi bat antolatu du

taldeak, jokari guztiak herri ezberdinetara eramango dituena. Gipuzkoa osoa zeharkatzen ari da taldea eta, gaurkoan, Tolosaren txanda izango da. Hala, 11:00etan, Triangulo

plazan bilduko dira, «garaipena herritar guztiekin ospatzeko». Jokalarietako autografoak sinatuko dizkiete bertara biltzen diren zaletu guztiei.

Jokalarietako batera, taldeko

lehendakaria Migel Santos ere izango da Tolosan, zuzendari-tzako kideekin batera.

Gazteei dei berezia

45 minutu inguru emango dituzte Tolosan; izan ere, ondoren Urretxura abiatuko dira bertan beste ekitaldi bat izango baitute zain. Haur, gazte eta saskibaloijokari guztiak gonbidatu nahi izan dituzte taldeko arduradunek Trianguloko hitzordura.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Amezeta. Etxea abikia salgai.
Eraiki berria. Informa zaitez!
Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berogailuarekin. Dena kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat berriua. Trastelekuarekin. Zonalde oso olean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Anoeta. Eraiki berria. 70 m². 2 logela. Egoera ezin hobean.

Dena kanpoaldera. 24 m²-ko trastelekuarekin. 46.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera paregabea! Etxebizitza zoragarria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komunak. Egoera ezin hobean. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, hiru logela eta komunak. Egoera olean. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI salgai. 2000. urtekoa. 88.000 kilometro ditu. Estrak. Interesatuek deitu 943 69 71 94 telefono zenbakira.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai; Berrobin. Prezio negoziagarria. Interesatuek deitu 618 83 32 56 telefono zenbakira.


TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ordaintzen jarraitzea?». Sartu gure webgunean eta eman iritzia zure eskualdeko gaiei buruz, bai eta bertan planteatutako zaizkizun beste askori buruz ere.

DANTZA ▶
ESTI EZEIZA

Herenegun, 250 ikusle inguru joan ziren Pasai Donibaneko kiroldegira jokoan zegoen Euskadiko XXVI. Gipuzkoar Aurreku Txapelketa ikustera. Pasaiaiko Udalak, Gipuzkoako Euskal dantzarien Biltzarrak eta Alkarkide- Alkartasunako dantzari ohiak antolatuta, 12 dantzari aritu ziren lehian. Eskualdekoen artean, Aritz Iglesias, Iñigo Iraola eta Aitor Jauregi tolosarrek hartu zuten parte. Hauetatik, Iglesiasek soilik lortu zuen saria, 5. postuan geratu zelarik. Pasaiaiko Udalaren trofeoa eta 110 euro irabazi zituen.

Aurten sari nagusia, Tomas Muruaren *Arraunarekin* eskultura izan da. Aipatu behar da berak txapelketari eskaini dion lana dela, eta atzokoa Ibon Huarte oreretarrak eraman zuen.

Txapelketan egindako atsendaldietan, Jone Miren Taibok zuzentzen duen Pasaia musikaleko haur abesbatzak parte hartu zuen euskal folkloreaken

Aritz Iglesiasek saria jaso du XXVI. Aurreku Txapelketan

Bosgarren postuan sailkatu da Pasai Donibanen jokaturako norgehiagokan; Iñigo Iraola eta Aitor Jauregi dantzari tolosarrek ere hartu zuten parte igandean



Euskadiko XXVI. Gipuzkoar Aurreku Txapelketako irudi bat. HITZA

ARITZ IGLESIAS ▶ DANTZARIA

Tolosarrek igandean, Euskadiko XXVI. Gipuzkoar Aurreku Txapelketan parte hartu zuen, eta bosgarren egin zuen.

Zer moduzko sentazioa geratu zaizu emaitza honen ondoren.

Egindako saioarekin ez nintzen konforme geratu, eta hasiera batean ez nengoen gustura. Azken *Zortzikoa* bi bueltarekin amaitu nahi nuen, eta ez zitzaidan ongi irten azken bira. Horregatik, honen ondoren ez nuen espero 5. geratuko nintzenik; beraz, emaitza entzundakoan, sailkapenarekin gustora. Bestetik, aurreko astean

«Egindako saioarekin ez nintzen konforme geratu»

tiroi bat izan nuen, eta entseguetan hanka altxatu gabe aritu behar izan dut.

Bigarren aldia da Txapelketa honetan parte hartzen duzula...

Bai, orain dela bi urte ere aurkeztu nintzen, baina orduan proba egiteagatik edo bakarririk joan nintzen. Iaz, berriz,

arazo fisikoak zirela eta ezin izan nuen, eta aurtengoan desberdina zen, zerbait gehiago egitea espero nuen.

Zer da epaimahaia aintzat hartzen duena epaia ematerako garaian?

Alde batetik, betiko gauzak: hanka altxatzea, pausoak ondo markatzea, murixkak eta joko-

SAILKAPENA ▶

Eskualdeko hiru mutilek hartu zuten parte XXVI. Gipuzkoar Aurreku Txapelketan.

Herria	
1. Ibon Huarte	Errenteria
2. Aritz Salamanca	Errenteria
3. Urko Mibelena	Errenteria
4. Iker Larunbe	Atarrabia
5. Aritz Iglesias	Tolosa
6. Imanol Etxebeste	Oiartzun
7. Eñaut Fernandez	Oiartzun
8. Iñigo Oiarbide	Beasain
9. Iñigo Iraola	Tolosa
10. Aitor Jauregi	Tolosa
11. Xuban Iragorri	Oiartzun
12. Xiker Hidalgo	Ordizia

zenbait kanta eskainiz: *Xoriñoa kaiolan*, *Koralez koral*, *Pelegria naizela* eta *Pika hau, hau, hau...* Honez gain, haur kategoriatako Gipuzkoar Aurreku Txapelketan hauek izan ziren: 7 eta 11 urte bitartekoetan, Aritz Olarte; eta 12 eta 15 artekoetan, berriz, Asier Badiolak erakustaldia eskaini zuten Arantxa Ferreiro eta Jenifer Castillo-ekin batera.

Dantzatzen behar izan zituzten proben artean, lehenengo, hirunaka, *Soinu Zaharra*, *Ormatxulo* egin zuten. Ondoren, *Kontrapasa*; jarraian, *Aurkez aurke*; eta, amaitzeko *Zortzikoa* egin zuten.



E. EZEIZA

ak ongi egitea... Bestetik, azken *Zortzikoa* bakoitzak prestatzen du, eta zati bakoitzean zer sartzen dugun baloratzen dute.

Maila altua al zegoen aurkarien artean?

Bai, Errenteriako oso ongi egiten dute, lehenengo 8 postuetatik 5 beraien eraman dituzte. Hala ere, entzun zen aurreko maila baxuagoa izan dela. Ion Maia falta zen, eta nabari zen, lasaia edo...

Orain, beste txapelketarik edo ba al duzu jokatzeko?

Ez, orainoz ez, gure adinekoentzat txapelketa gutxi daude. Gaztetxoan ligaxkak eta egoiten dira gehiago. ◀

iragarki laburrak ▶


San Frantzisko etorb. 47. beheko
 40100
 Tolosa
 Tel.: 943 65 50 37
 Fax: 943 65 09 44
 e-mail: enria@enria.com
 www.enria.com

Abaltzoketa. Oso tamaina politeko baserria salgai.

Altzo. Ebe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

Anoeta. Marban dagoen tabernajatebea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. Taberna alokairuan, informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista onak.

Amezketak. Etxe atxikia salgai.

Amezketak. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.

Areso. Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko partzela salgai.

Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Hernalde. Etxe bifamiliar ederra salmentan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Etxe adosatua salmentan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Garaje ibi eta irekiak salgai. **Ibarra.** San Inazio auzoa. Hiru

logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 228.385 euro.

Ibarra. Euskalerria kalea.

Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Gabiria. Parake ederrean, eraikuntza berriko etxe familiarra.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldea,

egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje itxia.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Belate, 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 165 m²ko etxebizitza salmentan.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m². 2 eta 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela.

Oso bista ederrak. Gutzit berrituak. Estreinatzeko.

Tolosa. Araba Etorbidea, 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela.

25 m²ko trasteleku eta garajea.

Tolosa. San Frantzisko Ibilbidean 120m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m² pabilioi industrial alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228m² beheko aldean eta 148m² goikaldean. Prezio interesgarria!

Zizurkil. Etxe atxikia salmentan oso egoera onean.

Zizurkil. Etxe bifamiliar ederra salgai. 4 solairu.

Villabona. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera. Erabateko obra behar du. Eraikuntza gutzit berritua dago eta igogailua du.

IKAZTEGIETA ▶ KULTURA

Trenbideari segika

Ana Mari Larrea 79 urteko ikaztegietak bere amari buruzko liburua idatzi du: 'Oriarko kraelibela'. Hark erakutsi zion euskaraz irakurtzen eta idazten

IDOIA ETXEBERRIA - BERRIA

Trenetik jaitsi baino lehen ikusi dugu Anita, beltzez jantzia. Gure zain, irribarretsu. Legorretako geltokiarren parean bizi da, etxe arrosan. 79 urte ditu, eta liburua idatzi du, euskaraz, bere amari buruz Oriarko kraelibela. Izena Inaxi Benaola zen bere ama, eta 17 seme-alaba izan zituen: «Iñamahiru urtean hamarazpiti haur, hiru aldiru bikikiak izan zituen eta! Alta hilda zegoela jaso zen ezkena, eta alaba zaharrena lagundu zion erditzen, 13 urterekin. Ni hamalagurrena naiz. Gazte alargundu arren, ama ez omen zen kezakatu: «Beti konforma, beti pozki. Oso umore onkoa zen, eta ez zitzaizkion beti penak kontzertzen dabiltzan emakumeak gustatzen. Anita ere 42 urterekin geratu zen alargun, eta, amaren antzera, bizpooza galdu gabe bazi ditu bere las semeak: «Zuk duzu umorea», esaten zidaten. Zuk ez duzu nahik ez duzula», erantzuten nuen nik. Zer barre egiten gertu...», kontatu digu begiak dir dir.



Ana Mari Larrea, Anita, Legorretan bizi den 79 urteko ikaztegietak. XIN URBE / AGENDA PRESS

zen harekin! Oso bihurria nintzen. Orain ere bihurria du irribarretsu. Oriar baserriaraz hitzetan ere jardun dugu, ama nola joaten zen astoarekin Tolosaldeko azokara. Eta liburuaeren izenburuaz, kraelibelairen kontuaz. «Ezkondu aurretik, ama Donostian epon zen izaba-osalekin, sukaldarian ikasten. Ikaztegietakoa festetan, lehenengusak eta etortzen ziren, eta oso natilla ederrek egiten zituen. Gaietan, zuringoarenkin ateraten zion elurrerako mendia. Eta, gero, jartzen zion krabelin zuria, kopan, Donostian ikasi zuten hori. Garai haietarako ere ditoreak baziren, e! Bai horietan.

hitza Harpidedunen txokoa. Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu. 1 Bidaia zozagari bat Tenerife 2 lagunentzat. 2 Luxuzko otordu berezia Tolosaldeko Zumeta jatetxean. TENERIFERA BIDAIA 2 lagunentzat azetabeko egonaldia. OTORDU EDERRA 2 lagunentzat Tolosaldeko Zumeta jatetxean.

LIBURUA ▶



Liburuaren azala. «Nola izenburua. Oriarko kraelibela. Egilea, Ana Mari Larrea (ikaztegieta, 1927). Marrazkiak, Koko Gaita. Argitaletxea, Txalaparta. Oriarko, 70. Tirada, 1.000 ale.

lu bat zen, eta ez zion urten ikaztegietak bataiatzen. Ni izan nintzen bakarretakoa ikaztegietak bataiatu, aguztu aldatu zuten eta. Txerria hil eta odolkiak egiten ateraten zuten bizimodua aurrera Josepa Iñaxi: trenetik «bideratzen» bideekin seinalak egiteagatik ere ordaintzen zitoen. Eta emagin modura ere ibiltzen zen etxetik etxetik, medikuari laguntzen, «baina hori baldak egiten zuten; esperientzia zuen eta! Beterre ez dugu jaten! Postak jasan! Gaur bertan ekarriak dira!».



Ana Mari Larrea, bere ama Josepa Iñaxi Etxebarriekin. XIN URBE / AGENDA PRESS

ANA MARI LARREA «ORIOARKO KRAELIBELA» LIBURUAREN EGILEA. «Amak erakutsi zidan euskaraz irakurtzen eta idazten. Euskaldun porrokatua zen».

«Nola bestela? Euskalduna naiz ni. Amak erakutsi zidan euskaraz irakurtzen eta idazten. Euskaldun porrokatua zen. Euskarazko libururak gertuak etxean. Oso gustukoak zuten euskarazko letrak. Harri zintzen, eskolan esaten zidatena: «Nola dakizu zuk euskaraz idazten? Guk ez dakigu!» Nik euskaraz erdaraz bezalaxe nekien idazten. Oriarko hori ez el H-ak eta ez Lehengo erara!». Bi urterekin hasi zen eskolan Anita, beste ume batzuk baino lehenago. «Nik beti amarekin nahi nuen. Bete amaren atzetik nentzen, korrika, eta maistrak esan zion ni eskolara eramateko. Eta 14 urtera arte eron nintzen. Ez aita eta ez ama, nahikoa egin zigun amak eskolara bidaltu 14 urte arte». Maistra horien gaitzelanuzekin bakarretakoa herrian, «Hiri eskerrak, bestela inork ez gertuak izan bat bera ere jakingo erdaraz! Orduan zaila zen, Legorretan erdaraz hitz egiten zen asko, baina ikaztegietak ez».

«Liburua ateratzea munduan dagoen gauzarik poltiena izan da niretzat». «Liburua ateratzea munduan dagoen gauzarik poltiena izan da niretzat. Aurkezpena, nahiko emozionala nintzen. Piztas eta dena ekarri zuten. Ikaztegietak egun poltiena izan zen! Nork esango zidan niri horrela izan behar zuela?». Trenera lagundu digu, eta pastak eman dizkigu. «Eraman hau, bidetara jateko!». Ez du ezkerreko onartu, lehenengo eskolara da eta.

Tolosaldeko Hitza txokoa. Bidaia zozagari bat Tenerife 2 lagunentzat. Luxuzko otordu berezia Tolosaldeko Zumeta jatetxean. Tenerifera Bidaia 2 lagunentzat azetabeko egonaldia. Otordu ederra 2 lagunentzat Tolosaldeko Zumeta jatetxean.

ANOETA ▶

Izen-ematea festa
alternatiboko
ekitaldietako

Herri Borondatearen Aldeko Festen antolatzaileek gogorazi nahi dute Itzuli tabernan zerrendak daudela egitarauan dauden hainbat ekitaldietarako izena eman ahal izateko. Hala, ekainaren 15ean, osteguna, bi ekitaldietarako eman daiteke izena: tortilla patata txapelketa (hiruko taldeak osatu behar dira) eta afaria (sahieskia prestatuko da). Ekainaren 16an, bertso afaria egingo dute. Ekainaren 17an, Gazteen Eguna, afaria egingo dute Edurkan, eta 18an afaria txiste kontalariekin.

ANOETA ▶

Kutxadurei
buruzko hitzaldia
Alkartasun

Alkartasuna Biltokian Kutxak antolatutako hitzaldia emango du, bihar, Xabier Ezeizabarrenak. 18:30ean hasiko da eta gaia *Kutxadura motak eta osasunean dituzten ondorioak* izango da. Bestalde, Alkartasunatik gogorazi nahi dute Inmersoko bidaletarako inpresok bertan dituztela eta nahi duenak bertara joan daitezkeela horiek eskuratzea.

ANOETA ▶

Paul Nicholsonen
hitzaldia etzi
izango da

Maiatza Gorria jardunaldietan aldaketa egon dela azaldu dute antolatzaileek. Gaurko Paul Nicholsonen hitzaldia etzi egingo da, 19:00etan, Anoetako Gaztetxean.

AZPIEGITURAK ▶

Udal ordezkarien
bisita Goierriko ur
instalakuntzetara

Gipuzkoako Ur Kontsultorioak antolatuta, Tolosaldeko hainbat udal ordezkariak Goierriko ur instalakuntzak bisitatu zituzten atzo. Helburua etorkizunean Ibiur presa martxan jartzen denean Tolosaldeak izango dituen ur instalakuntzak nolakoak izango diren ikustea izan da, Goierriko egun dituen antzekoak izango baitira.

NEREA AMILIBIA ▶ KORRIKALARIA

«Lehenengo euskalduna
izatea nahi nuen eta lortu
dut nire helburua»

Zegama-Aizkorriko mendi maratoian lortutako emaitzarekin gustura dago Nerea Amilibia korrikalari zizurkildarra



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

IMANOL GARCIA

Nerea Amilibia (Zizurkil, 1971) izan da Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiko protagonistetako bat. Lehen euskaldun emakumea izatea lortu du, orokorrean bosgarren lekua lortuz. 5:11'35" behar izan zuen 42,125 kilometroak egiteko, eta denbora horrekin parte-hartzaile guztiak kontuan hartuta, 74. postuan amaitzea lortu zuen.

Esperokoa lortu al zenuen?

Bai, bai. Uste baino hobeto joan zen guztia. Lehenengo emakume euskalduna izatea lortu nuen eta zortzi minututan jaitsi nuen aurreko urteko marka. Oso gustura nago egindakoarekin.

Bosgarren egin zenuen emakumezkoetan. Atzerritarrak gaindiezinak al dira?

Aurreko urtetik postu bat hobetu dut sailkapen orokorrean. Egia esan, kanpotarrak indartsuago dabilta, baina tarteka ibili izan naiz beraiekin nahastuta.

Bero handia egin omen zuen. Zertan eragin zizuen horrek?

Ni beroarekin oso ondo aritzen naiz. Eguzkiari ateratzeko eskatzen nion. Nik ez nuen sufritu beroarekin. Niri ondo etortzen zait. Goikaldean haize freskoa ere egiten zuen.

Bestelako arazorik izan zenuen?

Azken lau kilometroak azkazelako minez egin nituen.

Bost ordu baino gehiago mendian gora eta behera, eta gainera korrika. Izugarriko esfortzua izan behar du, ezta?

Oso proba luzea da, eta gorputzak asko sufritzen du. Lehenengo euskalduna izatea nahi nuen, eta lortu dut. Esperantza horrekin joan nintzen, baina oso altu esan gabe, horrelako probetan ez dakizulako zer gertatu daitekeen, eta lortu dut nahi nuen.

Datorren urtean bueltatzeko gogoarekin?

Proba astakeria da, gorputzari astindu handia ematen zaio eta ez dut uste oso ona denik gorputzarentzako. Ezezkotan nago, nire helburua bete dudalako, baina ez naiz ausartzen guztiz ezetz esatera.

Mendi maratoiak egiten ari-

tzen direnak zenbat egiten dituzte urtean?

Horretara dedikatzen direnak urtean bi edo hiru egiten dituzte. Askok eskatzen duen kirola da, asko sufritzekoa.

Kirol horretatik bizitzea ez da erraza izango.

Postu ona egin dut, baina bosgarren bukatuta ez nuen dirurik jaso. Lehenengo hiruak jasotzen zuten saria. Oso zaila da honetatik bizitzea. Nik lana egiten dut eta dena ondo eramatea oso zaila da. Horregatik datorren urtean ez dakit berriro parte hartuko dudana. Hortzak asko estutu beharko nituzke eta asko sufritu aurtengoa hobetzeko.

Non eta noiz duzu hurrengo proba?

Datorren asteburuan Pagoetako igoera egingo dut. Zarauztik hasi, Pagoetaraino igo eta berriro jaitsi egin behar da. Guztira, 13,5 kilometro.

Hori ere ez da esfortzu txikia izango.

Nahiko esfortzu egin behar da, bai, baina ez dira maratoiaren 42 kilometroak. Ez da hain luzea egiten.

ANOETA ▶

Udako kirol
jardueretan
izen-ematea
zabalik

Piraguismoa, hipika, surfa, xakea eta igeriketa egiteko aukera izango dute

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak aurtengo udako kirol jardueraren izen-ematea zabalik du. Hainbat kirol egiteko aukera dago, 1990 eta 1997 urte bitartean jaio direnei zuzenduak. Izena udaletxean eman behar da, ekainaren 2a arte, eta murrizpenak ere izango dira.

Piraguismoa (Txaramak presan edo Donostiako Kontxa hondartzan), hipika (Zizurkil), surfa (Donostiako Zurriola hondartzan), xakea (Anoetan) eta igeriketa (Villabonako Olaedera kiroldegian) egiteko aukera dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Oreandin.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ XXVIII. KULTUR ASTEA



Argizaria. Argizaria, teknika desberdinez landutakoa, kolore eta usain aniztasunaz gain, landare lehorrekin konbinatuta ikusgai zegoen. MADDI SOROA



Euskal jantziak. Ume nahi helduentzat ere, eskuz jositako arropak: lortzak, bainnikak, kolore eta oihal mota desberdinez egindakoak. MADDI SOROA



Saskigilea. Itxura, tamaina askotariko saskiak, aulkiak... Salmenta ona egin zuten. MADDI SOROA



Marketeria. Lan eta lan, zurezko irudi desberdineko piezatxoak elkarri lotuz. MADDI SOROA



Jertseak. Maindarekizko zerrenda koloreztatuekin egindako hainbat moldetakoak. Hau ere lan eta lan aritu zen egun osoan. MADDI SOROA

Erakusketa jendetsua astea bukatzeko

Hitzaldiak, musika emanaldiak, herri afaria, artisauen erakusketa aukeran izan dituzte herritar nahiz bisitariek

JAIONE ASTIBIA

Atzo egun guztian zehar egindako eskulangintza erakusketarekin, bukatu zuten aurten 28. edizioa zuen Kultur Astea.

Euskal Herri osotik etorritako 28 artisauk beren lanak eta langintza bera ere erakutsi zi-

tuzten, jendaurrean, bertan aritu baitziren lanean batzuk. Eta ikusle franko bertaratu zela nabarmentzekoa da, eguraldia ere eguzkiatsu eta bero izanik, horretara lagundu zuen eta: herritarrek eta bisitariak ere bai, jaunartzeetara etorritakoak bidenabarrean, edo propio

erosketa zehatzen bat egitera etorritakorik ere bai.

Saskiak, makilak, jertseak, abarkak, kutxak, pitxiak, argizari eta ukenduak, bidrierak, euskal jantziak... Material gehienetako erakusmahaiak baziren, antolakuntzak zehaztu zuenez, «harria eta oihalgintza

etortzekoak ziren arren, gaur goizean [atzo] azken orduan ez dute etortzerik izan lau postuk». Bestalde, artisauak saldu baino «enkarguak hartu ditugu», azaldu zuten.

Berezitasun modura aitzazekoa 80 urteko Anastasia Leunda hernaniarrak jarri zuen mahai: eukalpto usaina zerion; izan ere, edozein zuhaitzen ezkurerekin, oliba hezurerekin... berak egindako lepokoak zituen salgai, «aro desberdinetan bildutako eukapito-haziz egindakoak dira gehienak», zioen, eta artilez egindako barrango arropak ere hantxe zituen erakusgai: «Ezkon-aurreko agurretarako eta erosten dizkirate», azaltzen zion berak inguratzen zitzaion guztiari,

bera ere artilez egindako soineko eta oinetako jantzita zegoelarik. «Lepoko hauekin nik ez dut katarrorik harrapatu zkeneko urte hauetan»; eta halaxe sasoia erakusten zuen.

Egun guztian zehar, taloak egin eta egin aritu ziren talogileak ere, Kultur Asteko gastuak ordaintzeko borondatez ariz, urtero bezala. XXVI. Eskulangintzako erakusketa-ekitaldi honekin bukatu zen Kultur Astea.

Hori bano lehen, bezperan egindako gazteen herri afarian 85 lagun bildu ziren, eta Batugara perkusio taldearen kalejirarekin eta Txarralderen eta Khouses kontzertuarekin aparteko gau-giroaz gozatu zuten guztiak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Altzo. Festak antolatzeko bilera. 22:00etan, Elordin.
Ibarra. Elkartasun Eguna antolatzeko bilera. 19:30ean, Kultur Etxean.
Ibarra. Jai Batzordearen bilera. 20:00etan, udalbatzar aretoan.
Villabona. English festival Jesusen Bihotzako ikasleen eskutik. 17:30ean, Gurean. 40. urtemugan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itxasoren margolanak. Ekainaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

HITZALDIAK

Altzo. Gure motor nagusiaren egitura eta funtzionamendua ezagutzeko. Garbiñe Agirre adituarekin. Bihar, 17:00etan, Ertobeko gelan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
18:00-19:00. Adi Guri.
21:00-22:00. Zaharrak berri.
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Ibarrako auzoak, jaietan

IBARRA ▶ Ibarrako bi auzoen jaiak izan dira asteburuan: atzo bukatu ziren San Inaziokoak, eta Izaskungoak hasi; datorren asteburuan jarraituko dute

ERREDAKZIOA

Ibarrako bi auzoko festek egin dute bat pasa den asteburuan. Batek besteari hartu dio lekukoa, gainera. San Inazio auzoan igandean bukatu ziren jaiak, eta egun horretan bertan hasi ziren Izaskungo festak.

Herriko txistularien dianak esnatu zituen auzotarrak San Inazio, eta txarangak ere alaitu zituen txokoak. Javier Eloorriaga eta Unai Otaño aizkolariak erakustaldia eskaini zuten eguerdian, trikitixa eta bertso-larien doinupean. Gero, herri bazkarian elkartu ziren auzotarrak. Petardo-sorta zarata-tsua agurtu zituten aurtengo festak.

Izaskungen, hiru talderen arteko sokatira lehiak zabaldu zuen egitaraua: Izaskundarrak, Oiartzun eta Urnieta. Izaskundarrak izan ziren jaun eta jabe, beraien abilezia erakutsiz eta etxeko zaleen animoek lagunduta. «Talde guztiak oso ondo aritu ziren. Ordu eta erdi bi ordu inguruko festa polita izan zen, eta jende asko elkartu ginen, eguraldi onak lagunduta. Gero, afaltzera joan ginen denak Izaskungo jatetxera bertara», azaldu diote HITZARI antolatzailak. Datorren asteburuan jarraituko du festak Izaskungen.



Izaskundarrak taldeak irabazi ziren Urnietari eta Oiartzuni sokatira lehia, Izaskun auzoan. MADDI SOROA



San Inazio auzoan bazkari legea egin zuten igandean, festen azken egunean. MADDI SOROA

LS B★ **LANBIDE HEZIKETA: LA SALLE-BERROZPEN**
La Salle Berrozpen ANDOAIN
Maiatzak 30: ATE IREKIAK

Behere tentsioko instalazio elektrikoak.
Mantenimendu elektromeکانiko.
Merkataritza.
Administrazio eta Finantzak.
Mekanizazio bidezko produkzioa.
Produktu elektronikoen garapena.

zure etorkizuna, gure erronka

Ekainak 1etik-7ra
Aurrematrikulak - LANBIDE HEZIKETA

La Salle etorbidea, 5
20140 Andoain Gipuzkoa
Tel.: 943 590557
Faxa: 943 300563
www.lasalleberrozpe.com

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**
▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

egunean 0,18 zentimoren truke etxean